

## **GOBERNU BATZARRA**

2008. 09. 08

**Alkatea:**

**Jokin Bildarratz Sorron**

**Zinegotziak:**

**Jokin Azkue Arrastoa  
Onintza Lasa Arteaga  
Andoni Iturzaeta Arbillaga**

**Idazkaria:**

**Jose Luis Unanue Ugalde**

Tolosako Udaletxean, bi mila zortziko irailaren 8an, Gobernu batzarra bildu da, ohizko bilera egiteko, goizeko 08:00etan hasita. Mahai-burua alkatea izan da eta alboko zinegotziak agertu dira, eguneko gai zerrendan agertzen diren puntuak aztertzeko.

1.- Aurreko akta onartzea.

2.-Maindi Elkarteari Topaguneko kudeaketaren adjudikazioa.

3.- Euskararen Erabilera ikastetxeetan egitasmoaren oinarriak.

4.- 28 Kanala telebistaren hitzarmena.

5.- Aitzol Udal Euskaltegia.

6.-Euskal Herria Plazako zentro sozialaren gastu-sarreraren likidazioa.

7.-21.zenbakia duen faktura-zerrenda.

### **1.- Aurreko akta onartzea.**

Alkateak bilerari hasiera eman ondoren, 2008ko uztailaren 28an egindako batzarraren akta aztertu eta aho batez onartu da.

### **2.- Maindi Elkarteari Topaguneko kudeaketaren adjudikazioa.**

Tolosako Aisialdiko Hezkuntza eta Dinamizazio Programa garatzeko, Kili-Kolo S. Coop.rekin sinatutako kontratuaren luzapena 2008ko urriaren 1ean bukatzen da. Gazteriko Departamentuak zerbitzu honen jarraipenaren beharra adierazi zuen. Programa hau garatuko zuen zerbitzua lizitazio irekiaz eta lehiaketa bidez esleitzea egokiena zala ikusiz, Gobernu batzarrak, 2008ko maiatzaren 26an egindako bileran, esleipen prozedurari hasiera eman zion baldintza pleguak onartuz.

Irekitako epearen barruan proposamen bakarra aurkeztu da: **MAINDI** Elkartearena.

Gazte teknikariak adjudikazio txostena egin zuen **MAINDI** Elkartearen alde, positibotzat baloratuz aurkeztutako proiektua eta pertsonalaren balioa.

Txosten hau kontutan izanik, uztailaren 24an kontratazio mahaia bildu zen Gobernu batzarrari **MAINDI** Elkartearen alde adjudikazio proposamena egiteko.

Hau kontutan izanik, Gobernu batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

## **E R A B A K I D U**

**LEHENA**.- Litzitazioaren ekintza baliozkotzat ematea eta behin behineko adjudikazioa egitea **MAINDI** Elkarteari, Tolosako Gazte Topaguneko hezkuntza eta dinamizazio programa zerbitzua aurrera eraman dezan hurrengo baldintzetan:

**Prezioa:** 63.000 euro urteko.

**Epea:** 2008ko urriaren 1etik 2009ko urriaren 1arte. Kontratua urtero luzatu ahalko da, 3 urtetan.

**BIGARRENA**.- **MAINDI** Elkarteari, behin-behineko adjudikazioa jakinaraztea.

**HIRUGARRENA**.- **MAINDI** Elkarteari, kontratuaren behin-behineko esleipendun denari, ondorengo jakinarazi eta eskatzea: Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Kontratugileen Perfilean behin-behineko eslaipena argitaratzen denetik hasi eta hurrengo hamabost eguneko epean, behin betiko adjudikazioaren %5eko bermearen agiria aurkeztu dezala, hau da, 2.646 eurokoa.

**LAUGARRENA**.- Kontratuaren behin-behineko esleipena Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Kontratugilearen Perfilean argitaratzea.

**BOSGARRENA**.- Behin-behineko esleipena behin betiko izatera pasako da automatikoki, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean albistea argitaratu eta hurrengo hamabost eguneko epean, aurreikusitako eginbeharrak betetzen baditu kontratugileak. Eta horrela izango baltz esleipenaren behin-betikotasuna argitaratudo da aipatutako aldizkarian.

### **3.- Euskararen Erabilera ikastetxeetan egitasmoaren oinarriak.**

Euskara eta Hezkuntza batzordeak aurkeztutako oinarriak ikusita eta berak egindako proposamenarekin bat etorritz, Gobernu batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

## ERABAKI DU

**LEHENA.**- 2009ko aurrekontuen gain, 52.000 euro onartzea izen buruan aipatutako egitasmoari aurre egiteko.

**BIGARRENA.**- Ogasun Batzordeari jakinaraztea 2009ko aurrekontuetan diru kopuru hori jar dezan.

**HIRUGARRENA.**- Egitasmoa arautuko duten oinarriak onartzea eta guztia idazkariak fede emanaz dagokion espedientean jasotzea.

**LAUGARRENA.**- Departamentu buruari adieraztea lau hilabeteko epean egitasmoaren balorazioa aurkeztu behar dela Gobernu Batzarrean.

### 4.- 28 Kanala telebistarekin hitzarmena.

Euskara eta Hezkuntza batzordeak jaulkitako diktamenarekin bat etorriz, Gobernu batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta eta aurreko urteko hitzarmena aztertu eta gero,

## ERABAKI DU

**LEHENA.**- 28 Kanala telebistari 40.000 euroko diru laguntza ematea.

**BIGARRENA.**- Diru laguntzari dagokion hitzarmena ontzat jotzea eta guztia, idazkariak fede emanaz, dagokion espedientean jasotzea.

### 5.- Aitzol Udal Euskaltegia.

Euskara eta Hezkuntza batzordeak jaulkitako diktamenarekin bat etorriz, Gobernu batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

## ERABAKI DU

**LEHENA.**- 2007-08 ikasturteko 72 ikasleei 20.927,25€-ko diru laguntza itzultzea, ondoren aipatzen den eran banatuta:

IKASLE KOPURUA	ITZULI BEHARREKO DIRUA	GUZTIRA
37 IKASLE	413,25€	15.290,25€
22 IKASLE	176,00€	3.872,00€
3 IKASLE	258,30€	774,90€
3 IKASLE	111,00€	333,00€
1 IKASLE	88,00€	88,00€
5 IKASLE	82,50€	412,50€
1 IKASLE	156,60€	156,60€
<b>72 IKASLE</b>		<b>20.927,25€</b>

**BIGARRENA**.- Ogasun Departamentuari zerrenda pasatzea lehenbaitlehen ordainketa egin dezala eskatuz.

**6.- Euskal Herria plazako zentro sozialaren gastu-sarrerren likidazioa.**

Gobernu batzar honek, 2005eko martxoaren 21ean, Euskal Herria plazako Zentro Sozialaren zrbitzuak gestionatzeko ardura lurramendi egoitzari eman zion.

Hori horrela, 2008ko ekaineko gastu-sarrerren likidazioa aurkeztu du lurramendi egoitzak.

Aipatutako gastu-zerrenda ikusita, Gobernu batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

**E R A B A K I D U**

**LEHENA**.- Aurkeztutako lidikazioa onartzea.

<b>GASTUAK</b>	<b>19.684,51</b>
<b>SARRERAK</b>	<b>6.604,00</b>
<b>APORTAZIOA</b>	<b>13.080,51</b>

**BIGARRENA**.- Erabaki honen berri kontuhartzaileri eta lurramendi egoitzari ematea.

**7.-21. zenbakia duen faktura-zerrenda.**

Kontuhartzailtzak 21. faktura-zerrenda, 411.144,20 €-koa, aurkeztu du.

Hortaz, zerrenda azterturik, Gobernu batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

**E R A B A K I D U**

**LEHENA**.- Aipatutako 21. faktura-zerrenda onartzea.

**BIGARREN**.- Onarpenaren berri Kontuhartzailtzari ematea.

**Gai zerrendatik aparte eta daukaten premia kontuan izanik ondoren aipatzen diren gaiak tratatzen dira:**

**Aurrekontuak**.- Alkateak eskatu du aurrekontuaren egutegia jarraitzea. Bestalde, aipatu da Foru Aldundiko Ogasun arloak aurreikusitako dirubilketa gutxiago izan dutela eta aurreratutako kopuruaren zati bat itzuli egin beharko dela. Beraz, itzulketa hori kudeatu egin behar dela.

.....

**Legealdi plana**.- Datak aurrera dihoazten neurrian, legealdi plana garatzea eskatu du Alkateak.

.....

**Tolosa Gasa eta Tolargi**.- Udal enpresei buruz hainbat gogoeta egin ditu alkateak eta etorkizunari begira erabakiak hartu beharko direla, eskatu diren txostenak aztertu ondoren.

.....

**Ordenantzen aldaketak**.- Datorren asterako Ordenantzen aldaketari buruzko planteamendu bat egiteko eskatu die alkateak Ogasun arloko arduradunei.

**Eta besterik gabe, bilera amaitutzat jotzen da, 10:00etan.**

**ALKATEA**

**IDAZKARIA**